

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko uztailaren 13tik 19rako astea**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala) 17/07/2020

- Ebazpena, 2020ko uztailaren 8koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, ikus-entzunezko ekoizpen industriako (teknikariak) II. hitzarmen kolektiboaren Laneko Segurtasun eta Osasunaren Estatuko Sektoreko Batzordea berritzeko akordioaren akta erregistratzen eta argitaratzen duena. [2020-8078 xedapena - 3 orri.](#)
- Ebazpena, 2020ko uztailaren 8koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, Ur-instalazioen mantentze eta kontserbaziorako hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. [2020-8079 xedapena - 29 orri.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala) 2020/07/14

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko kirol lokalen eta kirol zelaiei sektorearen Hitzarmen Kolektiboaren aurreraeginaren luzapenaren Akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48001455011981). [2020-133 \(III-184\) xedapena- 2 orri.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/07/15

- **OGASUN MINISTERIOA.- Aurrekontuak.-** HAC/641/2020 Agindua, uztailaren 14koa, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrak egiteko arauak ematen dituenak. [2020-7863 xedapena - 42 orri.](#)

- **LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Euskal Autonomia Erkidegoa. Eginkizun eta zerbitzuen eskualdatzea.**
 - 665/2020 Errege Dekretua, uztailaren 14koa, Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa, laneko legeria betearaztearen arloan: erretiro arruntaren aurretiazko laguntzak kaleratze kolektiboko espedienteek ukitutako langileei. [2020-7865 xedapena - 4 orri.](#)
 - 666/2020 Errege Dekretua, uztailaren 14koa, Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa, produktu farmazeutikoen arloko legeria betearaztearen arloan. [2020-7866 xedapena - 4 orri.](#)
 - 667/2020 Errege Dekretua, uztailaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoari eskola-aseguruaren osasun prestazioen kudeaketari atxikitako baliabideak eskualdatzekoa. [2020-7867 xedapena - 4 orri.](#)
- **ESPAINIAKO BANKUA.- Kreditu-erakundeak.-** 4/2020 zirkularra, ekainaren 26koa, Espainiako Bankuarena, bankuen produktu eta zerbitzuen publizitateari buruzkoa. [2020-7869 xedapena - 20 orri.](#)

2020/07/16

- **ESTATUKO BURUZAGITZA**
 - **Langileen estatutua.-** 1/2020 Legea, uztailaren 15ekoa, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege-dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 52.d) artikuluan ezarritako lanera ez etortzeagatiko kaleratze objektiboa indargabetzen duena. [2020-7937 xedapena - 7 orri.](#)
 - **Premiazko neurriak.-** Akats zuzenketa, honako Errege Lege-dekretu honena: 24/2020 Errege Lege-dekretua, ekainaren 26koa, enplegua suspertzeko eta lan autonomia eta sektore industrialaren lehiakortasuna babesteko neurri sozialei buruzkoa. [2020-7938 xedapena - 1 orri.](#)

2020/07/17

- **GARRAIOEN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Aire segurtasuna.-** Ebazpena, 2020ko uztailaren 9koa, Aire Segurtasunaren Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, COVID-19aren

pandemiarekin lotuta, aireko bidaiarien eta abiazioko langileen kudeaketarako gidalerro operatiboak argitaratzen dituen. [2020-8006 xedapena - 42 orri.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/07/14

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** [81/2020 DEKRETUA, ekainaren 30ekoa, segurtasun industrialarena.](#) [2020-2742 xedapena - 35 orri.](#)

2020/07/15

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.- OGASUN ETA EKONOMIA SAILA OSASUN SAILA.-** [88/2020 DEKRETUA, uztailaren 14koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak hartu duen erabakia, farmazia-produktuei buruzko Estatuko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa.](#) [2020-2765 xedapena - 5 orri.](#)
- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.- OGASUN ETA EKONOMIA SAILA HEZKUNTZA SAILA.-** [89/2020 DEKRETUA, uztailaren 14koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak hartu duen erabakia, eskola-aseguruen osasun-prestazioen kudeaketari atxikita dauden baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa.](#) [2020-2766 xedapena - 6 orri.](#)
- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.- LAN ETA JUSTIZIA SAILA.-** [90/2020 DEKRETUA, uztailaren 14koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak hartu duen erabakia, lan-arloko legeria betearazteari lotuta Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoa: kaleratze kolektiboko espedienteek eragindako langileentzako ohiko erretiroaren aurreko laguntzak.](#) [2020-2767 xedapena - 6 orri.](#)

2020/07/16

- **OSASUN SAILA.-** AGINDUA, 2020ko uztailaren 15ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatu egiten baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. 2020-2784 xedapena – 5 orri.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/07/15

- **IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren 73/2020 FORU DEKRETUA, uztailaren 14koa, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz 2020. urtean abeltzaintza eta nekazaritza sektoreari laguntzeko minimis araubidearen barruko aparteko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen dituen. 2020-134 (I-475) - 14 orri.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/07/16

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA.-** "Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa"ko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia. 2020-3353 xedapena – 22 orri.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/07/13

- Batzordearen 2020/1009 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2020ko uztailaren 10ekoa, 808/2014 (EB) eta 809/2014 (EB) Erregelamenduak aldatzen dituen, COVID-19aren pandemiak eragin duen krisiari aurre egiteko zenbait neurri dagokionez. L 224/01

2020/07/15

- Batzordearen 2020/1027 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2020ko uztailaren 14koa, 771/2014 (EB), 1242/2014 (EB) eta 1243/2014 (EB) Betearazpen Erregelamenduak aldatzen dituen, COVID-19aren agerraldiaren eragina

arintzeko neurri espezifikoak betearazteari eta horien jarraipena egiteari dagokionez, arrantzaren eta akuikulturaren sektorean. [L 227/01](#)

- Batzordearen 2020/1023 (EB) Betearazpen Erabakia, 2020ko uztailaren 15ekoa, 2019/1765 (EB) Betearazpen Erabakia aldatzen duena, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko kontaktuen jarraipenerako eta ohartarazpenerako mugikorretarako aplikazio nazionalen artean datuak mugaz gaindi trukatzeari dagokionez (1). [LI 227/1](#)

2020/07/17

- 2020/1040 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Batzordearena, 2020ko uztailaren 15ekoa, 2016/1628 (EB) Erregelamendua aldatzen duena xedapen iragankorrei dagokienez, COVID-19aren krisiaren eraginari aurre egiteko (1)
[L 231/1](#)
- 2020/1042 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2020ko uztailaren 15ekoa, aldi baterako neurriak ezartzen dituen Europako herritar ekimenari buruzko 2019/788 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako bilketa, egiaztapen eta azterketa faseetarako, COVID-19 agerraldia kontuan hartuta. [L 231/7](#)
- 2020/1043 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2020ko uztailaren 15ekoa, genetikoki eraldatutako organismoak dituzten edo organismo horiek osatzen dituzten gizakientzako saiakuntza klinikoak egiteari eta sendagaiak emateari buruzkoa, gaixotasun koronabirikoa (COVID-19a) tratatzeko edo prebenitzeko. [L 231/12](#)
- 2020/C 235 I/01Batzordearen jakinarazpena — EBko sasoiko langileei buruzko gidalerroak COVID-19aren pandemiaren testuinguruan.- [CI 235/I](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO